



Denbora-

1 Zazpi aldeak

Zaldian ibiltzen ikasteko ikastaroan eman du izena Izarnek. Argazkia egin du bere zaldiaren alboan. Zazpi aldaketa egin dizkiogu argazkiari; ea ikusten dituzun.





2 Nor ote da?

Merkatuko aldageletan kuxkuxean ibili dira Nahia eta Aratz. Armairu batetik arropa eta tresna hauek atera dituzte. Nor ote da armairuaren jabea?

-pasak

3 Lotu bikoteak

Oporretara joan aurretik, baserri bat bisitatu dute ikasleek. Animalia ugari zeuden han. Egin eragiketak, animaliak binaka jartzeko.



Erantzunak: **2.-** Arrain-saltzaila.
3.- Ardia-katua, behia-zaldia, txerria-
 txita eta untxia-txakurra.
4.- Balizko-ustezko, itsusi-zatar,
 arbola-zuhaitz, ordenagailua-
 konputagailua eta ordeka-lautada.

4 Sinonimoekin jolasean

Ikasle bakoitzari txartel bana eman dio irakasleak. Esanahi bereko txartelak batu behar dituzte ikasleek.

balizko

itsusi

arbola

ordenagailua

ordeka

konputagailua

lautada

ustezko

zatar

zuhaitz